

IRAKASLE GAIZTOAK

Pertsonaiak: Nahi izanez gero gutxitu daitezke. Baita gehitu ere.

. Kontalaria	. Ikaslea 1	. Ikaslea 6	. Ikaslea 11
. Gaizkilea 1	. Ikaslea 2	. Ikaslea 7	. Ikaslea 12
. Gaizkilea 2	. Ikaslea 3	. Ikaslea 8	. Ikaslea 13
. Gaizkilea 3	. Ikaslea 4	. Ikaslea 9	. Ikaslea 14
. Andoni	. Ikaslea 5	. Ikaslea 10	. Egunkari saltzailea

Kontalaria: Kontatuko dizuegun istorio hau aspaldi aspaldian gure eskolan gertatu zen. Hiru gaizkile beti elkarrekin ibiltzen ziren, eta bere helburu bakarra handik eta hemendik dirua lapurtzea zen.

Gaizkilea 1: Nola edo hala dirua lortu behar dugu.

Gaizkilea 3: Bai, zerbait pentsatu behar dugu.

(Egunkari saltzaile bat eszenan garrasika sartzen da. Egunkariz betetako poltsa bat zintzilik darama eta beste egunkari bat eskuan darama).

Saltzailea: Extra! Extra! Santutxuko egunkaria! Extra! Extra!
Santutxuko egunkaria! Extra! Azken orduko albisteak!
Extra!

Gaizkilea 1: Aizu txikito! Etorri hona! Eman egunkari bat. Zenbat balio du?

Saltzaileak: Euro bat.

Gaizkilea 1: Tori. *(Bitartean, gaizkilea 2 egunkaria hartu eta irakurtzen hasten da)*

Saltzailea: *(Eskua luzatuz)* Eta propinatxo bat?

Gaizkilea 1: Propinatxo bat? *(une batez pentsakor gelditzen da).*
Ongi da. Kafetxo batentzat emango dizut *(poltsikotik azukretxo bat atera eta eman egiten dio)*

Saltzailea: *(Harrituta)* Baina hau... hau azukrea da.

Gaizkilea 1: Ba hori esan dizut! Kafetxo batentzat. Alde hemendik orain!

(Egunkari saltzailea haserre eszenatokitik irteten da).

Gaizkilea 2: Lagunak, entzun zer dioen egunkariko iragarki honek: "Karmelo ikastolan irakasleak behar ditugu. Karmelo ikastolan irakasle faltan gaude. Irakaslea baldin bazara etor zaitez. Irakaslerik gabe jarraituko bagenu ikastola itxi eta saldu egin beharko genuke".

Gaizkilea 3: Eta guri zer axola digu guzti horrek?

Gaizkilea 1: Zer nahi duzu, dirua irakasle lana betetzen irabaztea? Ni ez nago prest lanik egiteko.

Gaizkilea 3: Ezta ni ere!

Gaizkilea 2: Ez duzue ezertxo ere ulertzen. Irakasle berriak egongo balira beraiek izango lirateke ikastolaren jabeak.

Gaizkilea 1: Eta zertarako behar dut nik ikastola bat?

Gaizkilea 2: Entzun ongi. Guk irakaslearen papera egingo bagenu eta haur guztiak beldurtzea eta uxatzea lortuko bagenu, ikastola haurrik gabe geldituko litzateke. Eta ez badago umerik ez da ikastolarik behar.

Gaizkilea 3: Ondorioz ikastola guk salduko genuke eta diru pila bat atera.

Gaizkilea 1: ideia bikaina.

Gaizkilea 3: eta nola lortuko genuke haurrak beldurtzea eta uxatzea?

Gaizkilea 2: Oso errez. Irakasle oso gaiztoak izaten.

Gaizkilea 1+3: Hori, hori, oso gaiztoak izango gara.

Kontalaria: Gaizkileak herriko ikastolan agertu ziren eta hauek, jakina, irakasle faltan zeudenez, beso zabalik eta poz pozik hartu zituzten. Baina begira zer gertatu zen ikastolako lehenengo egunean.

Haurrak jolas orduan futboleak jolasten ari dira)

Ikasleak: pasa, pasa. Pasa baloia. Pasa

(Haur batek, baloia duenari sarrera gogorra egiten dio eta lurrera jaurtitzen du)

Ikaslea 5: Ai, ai, ai. Penaltia izan da. Penaltia izan da

Ikaslea 6: Ez, ez da izan. Baloia eman diot.

Ikaslea 5: Baloia??? Bai zera, nire oinari eman diozu.

Ikaslea 6: Ezetz ba, baloia eman diodala.

Ikaslea 5: Nire oinari!

Ikaslea 6: Baloia!

Ikaslea 5: Nire oinari!

Ikaslea 6: Baloia!

Ikaslea 5: Nire oinari!

Ikaslea 6: Baloia!

(Altabozetatik Txalaparta entzuten da)

Ikaslea 7: Txalaparta da. Gelara sartzeko ordua da.

(Korrika baten guztiak gelara sartu eta eseri egiten dira)

Gaizkilea 1: *(Gaizkilea 1 matematikako irakaslea izango balitz bezala sartzen da gelan. Haserre aurpegia darama eta humore txarrez dagoela dirudi).* Egunon!

Ikaslea 1: Egunon.

Ikaslea 2: Egunon.

Ikaslea 3: Zu al zara irakasle berria?

Gaizkilea 1: Isilik !!! Baina zer demontre da hau? Ez dizuete ezer irakatsi? Irakaslea gelan sartu orduko eserita eta isilik egon behar zarete, eta hauxe esan behar duzue: "Egunon irakasle jauna".
Ulertu duzue edo leloak zarete? Berriro sartuko naiz *(Berriro sartzen da)*.

Ikasleak: Egunon irakasle jauna.

Gaizkilea 1: Oso gaizki! Banekien ba ikastola honetako ikasleak astakilo hutsak izango zirela. Ozenki esan behar duzue! O-zen-ki !

Ikasleak: *(Ozenki)* Egunon irakasle jauna !

Gaizkilea 1: Nahiko da. Ni matematikako irakaslea naiz, eta hasteko buru kalkuluko galdera batzuk egingo dizkizuet. Ea, lelo aurpegia duen horrek, zenbat da 46.371×3580 ?

Ikaslea 4: Eee..... mmmmm..... Ez dakit, oso zaila da.

Gaizkilea 1: Zaila? Zaila? Bai zure moduko mozolo batentzat. Luzatu eskuak eta elkartu atzamarrak.

Ikaslea 4: Zertarako?

Gaizkilea 1: Zuk bete nik esandakoa!

(Ikasleak esandakoa betetzen du eta gaizkileak erregelarekin atzamarretan jotzen du)

Ikaslea 4: ai, ai, ai, hau mina *(negarrez hasten da)*.

Gaizkilea 1: ea horrela ikasten duzun! Ea beste horrek, zenbat da 833309 : 7141 ?

Ikaslea 5 : Eee..... mmmmm..... Ez dakit, oso zaila da.

Gaizkilea 1: Zaila? Zaila? Bai zure moduko tonto batentzat. Luzatu eskuak eta elkartu atzamarrak.

Ikaslea 5: Zertarako?

Gaizkilea 1: Zuk bete nik esandakoa!

(Ikasleak esandakoa betetzen du eta gaizkileak erregelarekin atzamarretan jotzen du)

Ikaslea 5: ai, ai, ai, hau mina. *(negarrez hasten da)*.

Gaizkilea 1: ea horrela ikasten duzun! Ea beste horrek, zenbat da 73899 : 8767 ?

Ikaslea 6 : Eee..... mmmmm..... Ez dakit, oso zaila da. Zuk ba al dakizu zenbat den?

Gaizkilea 1: Baina !!! Baina !!! Nola da posible hori erantzutea! Luzatu eskuak eta elkartu atzamarrak.

Ikaslea 4: Zertarako?

Gaizkilea 1: Zuk bete nik esandakoa!

(Ikasleak esandakoa betetzen du eta gaizkileak erregelarekin atzamarretan jotzen du)

Ikaslea 6: ai, ai, ai, hau mina. *(negarrez hasten da)*.

Gaizkilea 1: Aspertu naiz zuekin egoten. Etxeko lanak esango ditut orain. (*Liburu lodi bat esku artean du*) Biharko liburu honetako ariketa guztiak eginda ekarri behar dituzue.

Ikasleak: Ariketa Guztiak ???

Gaizkilea 1: Leloak izateaz gain gorra ere zarete? Bai guztiak, eta ez dituenak ekartzen argi ibili dadila! (*gelatik irten egiten da*).

Ikaslea 1: Jo, nolako irakasle gaiztoa etorri den.

Ikaslea 2: Bai, espero dut guztiak horrelakoak ez izatea.

Kontalaria: Haurrak beldurturik zeuden, eta hurrengo irakaslea nolakoa izango ote zen pentsatzen gelditu ziren. Ondoren bigarren gaizkilea Lenguako irakaslea balitz bezala sartu zen gelan.

Ikasleak: Egunon irakasle jauna !!!

Gaizkilea 2: Isilik!!! Baina zer demontre da hau? Ez dizuete ezer erakutsi? Irakaslea gelan sartzen denean haxe esan behar duzue: "Ongi al zaude irakasle agurgarri eta jakintsua?"

Ikaslea 8: Baina matematikako irakasleak esan digu...

Gaizkilea 2: Ixo! Zuek bete nik esandakoa eta kito.

Ikasleak: Ongi al zaude irakasle agurgarri eta jakintsua?

Gaizkilea 2: Ongi? Nola egongo naiz ongi zuek bezalako astakirten koadrila baten irakaslea baldin banaiz.

Ikaslea 8: Esango al diguzu behintzat nola deitzen zaren?

Gaizkilea 2: Baina, baina nork hitz egin du nik baimenik eman gabe? Zeu izan zara ezta? Etorri nirekin (*belarritik heltzen du eta tiraka hormaraino eramaten du*).

Ikaslea 8: Ai,ai, ai, aiiiiii.....

Gaizkilea 2: (*Horma ondoan belauniko, besoak zabalik esku bakoitzean liburu bat ipiniz uzten du*). Ea horrela errespetu pixka bat ikasten duzun.

Ikaslea 9: Zergatik zigortu duzu? Bakarrik zure izena galdetu dizu.

Gaizkilea 2: (*Oso haserre*) Nola da posible? Zuk ere ez duzu inolako errespeturik. (*belarritik heltzen du eta tiraka hormaraino eramaten du. Besoak zabalik eta esku bakoitzean liburu bat ipiniz uzten du*).

Ikaslea 9: Ai,ai, ai, aiiiiii.....

Gaizkilea 2: Aspertu naiz zuekin egoten. Etxerako lanak hauexek izango dira: (*liburu lodi bat ateratzen du*) Biharko liburu hau irakurrita ekarri behar da, eta baita bere laburpena ere.

Ikasleak: (*Harrituta*) Irakurrita guztia ???

Gaizkilea 2: Irakurrita eta laburtuta !

Ikaslea 10: Baina ez dugu denborarik izango guztia egiteko.

Gaizkilea 2: Zuk ere ez daukazu inolako *errespeturik* (*belarritik heltzen du eta tiraka hormaraino eramaten du. Besoak zabalik eta esku bakoitzean liburu bat ipiniz uzten du*).

Ikaslea 10: Ai,ai, ai, aiiiiii.....

Kontalaria: Haurrak beldurturik zeuden, ez zuten inoiz horrelako irakasle gaiztorik ezagutu. Ondoren hirugarren gaizkilea gimnasiako irakaslea izango balitz bezala joan zen.

Ikaslea 11: Eskerrak orain gimnasia daukagula.

Ikaslea 12: Bai, orain seguru ongi pasatuko dugula.

(Gaizkilea 3 sartzen da).

Ikasleak: Ongi al zaude irakasle agurgarri eta jakintsua?

Gaizkilea 3: Isilik !!! Baina zer demontre da hau? Ez dizuete ezer erakutsi? Irakaslea gelan sartzen denean hauxe esan behar duzue "Egunon irakasle maitea"

Ikaslea 11: Baina lenguako irakasleak esan digu...

Gaizkilea 3: Ixo! Zuek bete nik esandako eta kito !

Ikasleak: Egunon irakasle maitea.

Gaizkilea 3: Nahiko da. Saioa hasteko eman 500 bira patioan korrika.

Ikaslea 12: 500 ??? Bira gehiegi dira.

Gaizkilea 3: Gehiegi? Zuk hitz egiteagatik 1000 bira emango dituzu.

(Ikasleak korrika hasten dira. Irakaslea berriz aulki batean lasai lasai eseri eta puru bat erretzen hasten da. Haurrak, bira eta bira geroz eta nekatuagoak daude. Nola edo hala bukatzen dute).

Ikaslea 13: Oso nekatu gaude.

Gaizkilea 3: Nekatuta? Nekatuta neu nago zuek ikusten.

Ikaslea 14: Orain jolasen bat edo kirolen bat egingo dugu?

Gaizkilea 3: Ze jolas, ze kirol eta ze otxokuarto! Orain flexioak. 500 flexio. Hasi.

Ikaslea 12: 500 ??? flexio gehiegi dira gehiegi dira.

Gaizkilea 3: Gehiegi? Zuk hitz egiteagatik 1000 flexio egingo dituzu.

(Ikasleak flexioak egiten hasten dira. Irakaslea berriz aulki batean lasai lasai eseri eta purua

erretzen jarraitzen du. Haurrak, geroz eta nekatuagoak daude. Nola edo hala bukatzen dute).

Ikaslea 14: Oso nekaturik gaude, ezin dugu gehiago.

Gaizkilea 3: Nekaturik? Hau da hau alfer koadrila. Orain besoak gora, besoak bera salto eginez 500 aldiz. Hasi.

Ikaslea 12: 500 ??? gehie... ezer erez, ezer erez

Gaizkilea 3: Zerbait esan ahal duzu?

Ikaslea 12: Zera, 500 ongi daudela.

Gaizkilea 3: Ah bueno.

(Haurrak ariketa egiten hasten dira, baina pixkanaka nekearen nekez lurrera erori eta lotan gelditzen hasten dira. Guztiak Andoni izan ezik. Lurrean dago baina ez dago lotan. Orduan beste bi gaizkileak sartzen dira).

Gaizkilea 2: Lortu duzu haur guztiak lehertzea?

Gaizkilea 3: Bai. Honezkero ez dute gehiago etorri nahi izango.

Gaizkilea 1: Horrela jarraitzen badugu, laster umeak ikastola honetatik joango dira eta saldu ahal izango dugu.

Gaizkilea 2: Azken kolpea falta zaigu bakarrik, eta ideia bat daukat.

Gaizkilea 3: Esan, esan.

Gaizkilea 2: Aterpe baten, bi eguneko egonaldi bat antolatuko dugu, eta gauean mamuz mozorrotuko gara. Haurrak ikaratuko ditugu, eta ikastolara bueltatzen badira lepoa moztuko diegula esango diegu.

Gaizkilea 1: Ideia bikaina!

Gaizkilea 3: Bai horixe!

Kontalaria: Gaizkileak plan beldurgarria asmatzen ari ziren, baina ez ziren konturatu haur guztiak ez zeudela lotan. Andoni adi adi entzuten egon zen, eta horrela jakin zuen gizon haiek ez zirela irakasleak, gaizkileak baizik. Andoni berak ere plan bat asmatu zuen.

(Gaizkileak gelatik irten egiten dira. Andoni lotan dauden ikasleak esnatzen saiatzen da).

Andoni: Esnatu lagunak. Gure irakasleak ez dira irakasleak.

Ikaslea 14: Zer esaten ari zara?

Andoni: Ba horixe. Ez direla irakasleak, gaizkileak baizik.

Ikaslea 14: Ongi al zaude burutik?

Andoni: Baietz ba. Guztiok lotan geundela pentsatu dute, baina ni adi adi egon naiz. Haur guztiak beldurtu nahi gaituzte ikastolatik alde egiteko eta horrela saldu al izateko. Egonaldian susto galanta eman nahi digute, baina nik haxe pentsatu dut. Entzun, entzun bsssss bsssss...*(guztiak Andonirengana hurbildu eta hau zurrumurruka hitz egiten hasten da).*

Kontalaria: Egonaldiko egunak heldu ziren, eta begira zer gertatu zen gauean...

(Haurrak lotan daudela dirudi. Bat-batean iluntasunean hiru mamu sartzen dira, baina haurrak ez dira ikaratzen).

Gaizkilea 1: Ikastolako mamuak gara.

Gaizkilea 2: Ikastola gure etxea da eta bakarrik bizi nahi dugu ikastolan. Ez bueltatu gehiago ikastolara.

Gaizkilea 3: Berrito bueltatzen bazarete akabatu egingo zaituztegu.

(Bat-batean soinu beldurgarriak eginez beste mamu bat sartzen da).

Andoni: Ni naiz ikastolako benetako mamua, eta zuek gaizkile batzuk baino ez zarete.

Gaizkilea 1: *(Izara gainetik kenduz)* Ai ene orduan benetako mamua dago.

Gaizkilea 2: *(Izara gainetik kenduz)* Eta gainera badaki gu gaizkileak garela.

Gaizkilea 3: *(Izara gainetik kenduz)* Hau beldurra.

Andoni: Berrito ikastola honetatik agertzen bazarete lepoa moztuko dizuet. Alde Hemendik!

Gaizkileak 1+2+3: Aaaaaaaaahhhh !!! Goazen hemendik *(korrika ihes egiten dute).*

Andoni: *(Izara gainetik kenduz)* Hauek ez dira gehiago ikastolara etorriko. *(lagunak zoriontzen hasten dira).*

Kontalaria: Arrazoi galanta izan zuen Andonik, eta gaizkile haiek ez ziren sekula santan ikastolan agertu. Beraien orde ez beste irakasle batzuk etorri ziren eta hauekin beti oso ongi konpondu izan ziren. Beno, beti, beti... hori ere ez. Batzutan hasarratzen ziren, baina batzutan nor ez da hasarratzen?.

*Egilea: Iñaki Aldai
Karmelo Ikastola*